Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Koro Riesgo Oñederra

Deba, Gipuzkoa (1919-2012)



Aurkibidea

Biografia



Deban jaio zen 1919an. Lau anai-arreba ziren. Ama Mungiakoa zuen, Debara neskame etorria; aita Debakoa bertakoa zen, baina, jatorriz, Riesgo familia Asturiaskoa omen zen. Mojen eskolan ibili zen urte batzuetan, baina ez zuen denbora asko egin eskolan. 14 urterekin Debako Reiner lantegian hasi zen lanean. Urte batzuk bertan egin ostean neskame lanetan ere ibili zen. Gerra-garaian ihesean ibili behar izan zuten. Plentzian egon ziren denbora batez bertako txalet batean, etxea zaintzearen truk. Handik atzeraka-atzeraka Asturiaseraino joan ziren eta azkenean Frantziara eraman zituzten itsasontzi ingeles batean. Karmen ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

DEB-027

- **Proiektua**: Debako ondarearen transmisioa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Arrizabalaga, Ane - Baroja, Irati - Olazabal, Jone
- **Data**: 2011-01-26
- **Iraupena**: 70 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Gurasoen jatorria

- **Erref**: DEB-027/002
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:00:12. **Bukatu**: 00:02:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Koro Deban jaio zen, baina Karmen Arronamendian. Aitak harrobian lan egiten zuelako joan ziren hara bizitzera. Aita Madrilen jaio zen, baina umetatik Deban

bizi izan zen. Aitaren aldeko aitonaren jatorria Asturiaskoa zen, baina amona debarra zen. Euren ama, berriz, Mungiatik etorri zen Debara zerbitzari lanera. Baina amaren aldeko aitita ere Lasturkoa omen zen.

2. Gerra garaian, hiru urte etxetik kanpo

- **Erref**: DEB-027/003
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:06:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra garaian, aita ihesean joan zen anaiarekin eta eurak amarekin geratu ziren. Baina gero eurek ere ihesean joan behar izan zuten, eta hiru urtean egon ziren etxetik kanpo. Eusko Jaurlaritzak ordaintzen omen zien jatekoa. Karmen Katalunian egon zen urte eta erdiz bertako familia batekin, "gerrako ume" moduan. Gerra garaiko ibilerak: lehenbizi Plentziara, handik Laredora, Llanesera, Ribadesellara... eta handik barkuan Frantziara. Ia lekurik gabe joan ziren 3.000 lagun inguru itsasontzi ingeles batean. Gerra ez zuten zuzenean bizi izan; izan ere, anaia txofer ibiltzen zen, eta bonbak hasten zirenean, hark aurrera eramaten zituen, ihesean.

3. Eskolara nora joaten ziren

- **Erref**: DEB-027/005
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:07:15. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:
Arronamenditik Debara etorri ziren bizitzera. Eskola orain berdura plaza dagoen lekuan zegoen. Berdura plaza non zegoen azaltzen dute. Baserritarrak egunero etortzen ziren plazara barazkiekin. Astoak eliza txikiaren azpian lotzen zituzten. Gerra garaian 3 urte egin zituzten etxetik kanpo.

4. Reiner lantegian lan egindakoak

- **Erref**: DEB-027/006
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
7-8 urterekin hasi ziren eskolan. Koro 11 urte ingurura arte ibili zen eskolan eta 13 urte ingururekin "Plásticas Reiner" lantegian hasi zen lanean. Gero Karmen ere hantxe hasi zen lanean eta erretiratu arte bertan jardun zuen. Orduan "Plásticas Reiner" zen Debako lantegi bakarra eta herri osoak hantxe

egiten zuen lan. Gerora jarri ziren beste lantegi batzuk. Gerra aurretik arotzak ziren nagusi Deban. Material desberdin asko egiten ziren Reiner-en.

5. Gerra hasi zenean, Mungiara alde egin behar

- **Erref**: DEB-027/007
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Reiner lantegia erre zenean, Koro neskame egon zen Debako etxe batean. Gerora, gerra hasi zen. Eurak amarekin zeuden etxean, baina soldadu batzuek esan zieten alde egin behar zutela eta halaxe egin zuten. Anaia etorri zitzaien bila eta Mungiara eraman zituen. Gerra garaian jende asko etorri zen Donostia ingurutik Debara, gero Debatik Bizkaia aldera ihes egiteko.

6. Gerra denboran, Plentzian, Laredon eta Asturiasen

- **Erref**: DEB-027/008
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra garaian, Plentzian egon ziren. Deban bizi zen gizon batek txaleta zeukan han eta etxea zaintzearen truk bertan egon ziren bizitzen. Gernika bonbardatu zutenean, Plentzian zeuden eta zarata entzuten zuten. Gero Laredora joan ziren. Han tunelera joaten ziren gauetan babestera. Laredon pasa zituzten unerik gogorrenak. Gero Asturias aldera joan ziren; eta han, berriz, hobeto.

7. Deba erdalduna, kanpotarren eraginez?

- **Erref**: DEB-027/009
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:15:20. **Bukatu**: 00:16:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Beraiek umetatik zekiten gaztelaniaz, Deban gaztelania asko egiten zelako. Kanpotar asko etortzeak bazuen bere eragina. Udaran etxe guztiak kanpotarrentzat prestatzen ziren. Ganbara zutenak ganbarara joaten ziren bizitzera eta etxea alokatu egiten zuten.

8. Militarrak eta aristokratak Deban uda pasatzen

- **Erref**: DEB-027/010
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:16:40. **Bukatu**: 00:20:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:
Deban hotel asko zeuden: Deba, Miramar, Zelaia... Kanpotarrak txoferrarekin eta neskameekin etortzen ziren. Orduan herriko guztiek elkar ezagutzen zuten eta kanpotik etortzen zirenak ere ezagutzen zituzten. Jende ezaguna ere etortzen zen, Orgaz edo Lopez-Pinto jeneralak edo hainbat aristokrata esaterako. Eurak bizi diren inguruan txalet eta jauregiak zeuden garai batean. Ingurua nolakoa zen azaltzen dute. Kanpotarrek euren lur partikularrak zituzten eta herritarrekin harreman gutxi izaten zuten.

9. San Josepe ermita

- **Erref**: DEB-027/011
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:
Eurak bizi diren inguruan San Josepe ermita zegoen lehenago; gaur egun gurutzea bakarrik geratzen da. San Jose egunean meza egoten zen. Ingurua asko aldatu da.

10. Bilbo, Madril, Zaragoza eta inguruetako aberatsak Debara

- **Erref**: DEB-027/013
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:23:25. **Bukatu**: 00:26:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Bilbotik, Madrildik edo Zaragozatik etortzen zen jende asko eta gero baita inguruetatik ere: Eibar, Bergara... Estatutik kanpoko jenderik ez zen etortzen normalean; frantziar batzuk etorri izan ziren inoiz, baina asko ez. Orduan jende aberatsa etortzen zen Debara udan 3 hilabete pasatzera. Aberatsak goizean bakarrik joaten ziren hondartzara. "Bañeruak" edukitzen zituzten, bainua hartzen laguntzeko eta baita hankak garbitzeko ur-ontziak ere. Kasetetan aldatzen zituzten arropak. Orduko bainujantziak. Herriko jendea gutxi joaten zen hondartzara, kanpotarrentzat uzten zutelako.

11. Kanpotarren inudeak dotore

- **Erref**: DEB-027/014
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:26:25. **Bukatu**: 00:27:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Kanpotar batzuek inudeak ere ekartzen zituzten. Familia batzuek neskame asko ekartzen zituzten eta batzuetan herrian beste neskame batzuk gehiago hartu ere bai. Inudeak dotore-dotore etortzen ziren; dotoreenak Bilbokoak. Umeak ere dotore jantzita ekartzen zituzten.

12. Neska-mutilen arteko harremanak; dantzaldiak plazan eta Alamedan

- **Erref**: DEB-027/015
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:27:25. **Bukatu**: 00:29:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Kanpotik etortzen ziren mutilak nolakoak ziren. Haiengana ezin izaten ziren hurbildu. Herriko mutilekin harremana bazuten, denek ezagutzen zuten elkar eta. Plazan musika bandak 6 pieza jotzen zituen eta dantzara joaten ziren. Danbolina ere izaten zen. Udan Alamedan egoten zen musika. Han aberatsak alde batean eta herritarrak bestean egoten ziren. Dantza lotua egiten zuten. Mutilak etortzen ziren neskei dantza eskatzera.

13. Etxea alokatu eta ganbarara bizitzera

- **Erref**: DEB-027/017
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:31:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Kanpotarrak normalean urtero etortzen ziren eta gehienak ezagutzen zituzten. Debako hotelak; bakoitza non zegoen. Pentsioetara ere jende asko etortzen zen eta baita alokatutako etxeetara ere. Batzuetan "con derecho a cocina"; beste batzuetan etxekoak ganbarara joaten ziren eta etxea alokatu egiten zuten. Dirua nonbaitetik atera behar zen, Deban ez zegoen lantoki askorik eta. Herri pobrea omen zen.

14. San Roke jaiak eta inguruko festak

- **Erref**: DEB-027/018
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:31:50. **Bukatu**: 00:34:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
San Roke jaiak ospatzen ziren Deban. San Juan egunean Santa Katalinara, San Agustin egunean Sasiolara eta inguruetara ere joaten ziren. Beti oinez ibiltzen ziren. Orduan emakumeak ez ziren ibiltzen tabernetan. Txikiteo orduan gizonezko koadrilek abestu egiten zuten tabernetan. Inauteriak ez ziren gaur bezala ospatzen.

15. Debako ikastetxeak; Ostolaza eskola

- **Erref**: DEB-027/020
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:38:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Orain berdura plaza dena lehen Eskola publikoa zen. Alde batean mutilak egoten ziren maisuarekin eta beste aldean neskak maistrarekin. Gero mojen eskola eta maristena ere bazeuden. Eta eskola gehiago ikasi nahi zuten mutilak Ostolaza eskolara joaten ziren. Orain Kultura Elkartea dagoen eraikina zen orduan eskola. Gerra etorri zenean bukatu ziren eskolak. Ostolaza eskola konfiskatu egin zuten. Eskolan gaztelaniaz ikasi zuten. Karmenek irakasle eibartarra izan zuen, Sarasketa. Irakasle batzuek jakiten zuten euskaraz, baina beste batzuk ez. Mojekin ibili ziren eskolan. Arratsaldeetan josten ikasten zuten eskolan bertan. Nolako joste-lanak egiten zituzten.

16. Mantelinarekin elizara; mantelinak su hartu

- **Erref**: DEB-027/021
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:38:25. **Bukatu**: 00:41:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Elizara egunero joaten ziren; orduan gaizki ikusita zegoen elizara ez joatea. Karmeldarren eliza zenez, Karmen eguna eta Santa Teresaren eguna zituzten egun berezitzat. Aste Santuetan, mantelinarekin joan behar izaten zuten elizara. Kororen alaba ere joaten zen mantelinarekin 7-8 urte zituela. Umeak ezin geldirik egon elizan, eta behin kandelarekin su hartu omen zion mantelinak, jolasean zebiltzala.

17. Egun berezietan estreinatzen zen arropa

- **Erref**: DEB-027/023
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:42:30. **Bukatu**: 00:43:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Igandetan jendea dotore janzten zen mezetara joateko. Arropa berria egun berezietan estreinatzen zen, Pazko egunean edo Santu guztien egunean, esaterako.

18. "La pandilla" ikustera zinera

- **Erref**: DEB-027/024
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:43:25. **Bukatu**: 00:45:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Umetan, Arronamendian bizi zirenean, etortzen ziren Debara zinera. "La pandilla" ikusten omen zuten. Errepublikazaleek ere bazuten antzokia, baina beraiek gaztetxoak ziren eta ezin izaten ziren joan. Antzerkirik ez zen izaten herrian. Gerra aurrean Itziarko Ama Birjinaren antzerkia egin zuten Nemesio Etxaniz abadeak prestatuta.

19. Udan ikuskizunak eta San Roke jaietan zirkua

- **Erref**: DEB-027/025
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:45:05. **Bukatu**: 00:46:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:
Udan ikuskizunak egoten ziren kalean eta etxetik eserlekuak hartuta joaten zen jendea ikustera. Jendeak dirua botatzen zien. San Roke jaietan zirkuak etortzen ziren. Ikuskizunetan kanpoko mutilek ere parte hartzen zuen. Txiribiton (Deban pasatzen zuen udara) eta anaiak beti prest egoten omen ziren laguntzeko.

20. Umetako jolasak: kanikak, sakaponak, sokasaltoa...

- **Erref**: DEB-027/026
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:46:35. **Bukatu**: 00:48:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Umetako jolasak: kaniketan, "sakaponetan", sokasaltoan, txorro-morroka... Txorro-morroka mutilekin jolasten zuten. "Guardias civiles y ladrones" jolasean ezkutatzen ibiltzen ziren. Jolasetan gaztelaniazko kantuak kantatzen zituzten. Lehengo umeek gehiago jolasten omen zuten.

21. Reiner lantegian gehienak emakumeak

- **Erref**: DEB-027/027
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:48:40. **Bukatu**: 00:52:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
"Plásticas Reiner" lantegian langile gehienak emakumeak ziren, eskuz egin beharreko lana izaten zelako eta esku finak behar zirelako. Mekanikoak gizonezkoak ziren. Ernesto Reiner zen nagusia. Bera alemana zen eta familiarekin etorri zen Debara. Reiner lantegian egiten ziren materialak eta lantegiaren bilakaera. Orduan emakumeek bi aukera zeuzkaten: Reiner-era joan edo josten ikasi. Gizonezkoak zaletasunagatik joaten ziren arrantzara, baina ez hortatik bizitzeko. Eurak umeak zirela, itsasontzi handiak etortzen ziren ikatzarekin eta zubia jaso egiten zen barkuak pasatzeko.

22. Mutrikukoa euskara desberdina

- **Erref**: DEB-027/030
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:55:35. **Bukatu**: 00:56:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Euskara herri batetik bestera aldatzen da eta aldea igartzen dute Debatik Itziarrera, Mutrikura edo Ondarroara. Debarrei "txoruak" deitu izan zaie.

23. Itziar inguruko baserritarrak egunero plazara saltzera

- **Erref**: DEB-027/031
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:56:20. **Bukatu**: 00:57:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Itziarko jendea lehen ez zen hainbestetan etortzen Debara. Baina baserritarrak bai, plazara etortzen ziren saltzera egunero eta. Inguruetako baserrietako jendea egoten zen plazan.

24. Debako lehenengo kotxeak

- **Erref**: DEB-027/032
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:57:45. **Bukatu**: 00:59:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:
Deban lehenengotako kotxeak izan zituztenak: Patxi "Txiki", Leonardo...

25. Debako garbitokiak

- **Erref**: DEB-027/034
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:59:50. **Bukatu**: 01:01:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Etxea nola garbitzen zuten. Arropa harraskan garbitzen zuten, garbigailuak hasi arte. Garbitokiak non zeuden. Xaboia emateko harria egoten zen eta arropa aklaratzeko denek putzu berean egiten zuten. Etxean beti ezagutu dituzte ura eta argia. Arronamendian bizi zirenean errekara joaten ziren arropak astintzera eta bestela etxean. Lehenbiziko garbigailua Otsein markakoa izan zuten, baina arropak xaboitu bakarrik egiten zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com